

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOAREN 2017ko DEIALDIA

BIKAINASUNENKO IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA TEKNIKO BULTZATZEKO ESTATU PROGRAMARI DAGOZKION LAGUNTZAK

Dinamizazio ekintzak. "Bikaintasun Sareak"

<p>Helburua (1. art.)</p>	<p>Ikertaldeek sareak sortu eta garatu, honako hauek helburu hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - I+G+B 2008-2012 plan nazionalaren eta I+G+B 2013-2016 estatu planaren lehengo deialdietan finantzaturako ekintzen bidez lorturiko ikerketaren emaitzak hobetzea. - Instalazio Zientifiko eta Tekniko Berezien (IZTB) eta IZTB banatuen sareen koordinazio orokorrak sustatu. - I+G+B nazional eta nazioartekoek ekimen estrategiko berrien gestio eta koordinazioa gehitu.
<p>Eskaerak aurkezteko epea (14. art.)</p>	<p>2017ko urriaren 10etik 25eko 15:00ak arte.</p>
<p>Gauzatzeko epea (9.2 art.)</p>	<p>Urte bi, emakida ebazpenean zehazten den datatik zenbatzen hasita. Data hori ezingo da izan 2018ko uztaillaren 1a baino lehenagokoa.</p>
<p>Modalitate honetarako erabilgarri dagoen aurrekontua (6.3, 6.4 eta 6.5 art.)</p>	<p>2.500.000 euro, beste 1 milioi gehiago ere izateko moduan. Ez da 150.000 eurotik gorako banakako laguntzarik emango zuzeneko kostuen kontzeptu gisa, ICTSen sareak direnean izan ezik.</p>
<p>Ezaugarriak eta motak (9.1. art.)</p>	<p>➤ Sare motak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>Sare Tematikoak</u>: ezagutzaren arlo tematiko berebean edo antzekoetan diharduten ikertzaileek osatzen dituzte, eta kideetako batek zuzendu edo parte hartu behar izan du 11.2 art aipaturako I+G+Bko Estatu Planaren (2013-2016) batean. - <u>CONSOLIDER sareak</u>: CONSOLIDER ikerketa proiektuen azpiprogramaren 2006-2010 arteko deialdietan finantziazioa jaso duen proiektu berean parte hartu duten ikertzaileek osatzen dituzte, proiektua 2017ko ekainaren 30a baino lehen amaitu dutenak. - <u>ICTS sareak</u>: ICTSen mapan jasotako azpiegituren ikertzaile ordezkariak osatzen dituzte. - <u>Sare Estrategikoak</u>: - I+G+Brako itunetan, Berrikuntza eta Teknologiarako Europar

	Institutuaren KIC ekimenetan, azpiegituren Europar Partzuergoetan edo EBren ikerkuntza eta berrikuntzarako esparru programan parte hartzen duten erakundeek osatuta.
SARE TEMATIKOAK (11.2.1º art.)	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Jarraian zehazten diren deialdiren baten ikertzaile nagusia izatea, indarrean edo bukatuta dagoen proiekturen batean: <ul style="list-style-type: none"> - Jakintzaren sortzeko estatu azpiprogramaren I+G proiektuen 2013, 2014, 2015 eta 2016ko deialdiak. - "Gizarte erronkak" 2013, 2014, 2015 eta 2016ko deialdiak: I+G+B proiektuak
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Ikertzaile nagusiaren kasuan zehazten diren deialdiren bateko proiekturen baten ikertzaile nagusi gisa edo ikertaldeko kide gisa jardutea. Baldintza hau, gutxienez ikertaldeko %50ak bete beharko du. ➤ Ikertaldeak gutxienez 4 kide eta gehienez 10 kide edukiko du.
CONSOLIDER SAREAK (11.2.2º art.)	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Ikertzaile nagusi izan izana CONSOLIDER ikerketa proiektuen azpiprogramaren 2006-2010 arteko deialdietan finantziarioa jaso duen proiektu batean, eta proiektua 2017ko ekainaren 30a baino lehen amaitu izana.
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Ikertzaile nagusi gisa edo kide gisa parte hartu izana CONSOLIDER proiektuan parte hartzen duten eta ikertzaile nagusia kide izan duen erakundeen ikertalderen batean. ➤ CONSOLIDER proiektuan parte hartzen duten ikertalde bakoitzeko ikertzaile bakar bat onartuko da, eta taldearen ordezkari jardungo du. ➤ CONSOLIDER proiektu bateko ikertalde guztiek izango dute ordezkari sarea, zergatia behar bezala justifikatzen denean

	izan ezik.
ICTS SAREAK (11.2.3º art.)	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Osatzen duten azpiegituren erakunde titular edo kudeatzaileek hala erabakita izatea izendatua, edo koordinazio organo gorenak edo kudeaketa organo gorenak hala erabakita.
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Halaber, ikertaldeko kide izan daiteke erakunde eta azpiegitura horiekin loturarik ez duen aditu bat.
SARE ESTRATEGIKOAK (11.2.4º art.)	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin.
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin.